

Bat-bateko bertsogintza (I)

Oraindik ere gauza xelebrik irakurtzen da bazterretan. Badira uste dutenak bat-bateko bertsogintzarako era, oso berria dela. Baina, gauza jakina da bertsolaritzaren lehen berri zehatzak elkarren arteko desafiozkoak direla. Hala jaso zuen Izuetak bere denboran, Fernando Amezketa-rra eraman zutela Aspexitra bertako jaietan, baina kontrariorik ez zitzaioela agertu plazan, bai ordea gauza ostatuak atarian. Eta, bihurtuanean kalean aurkitu zuenean, hara zer nolako ateraldia egin zion Pernandok:

Lagunak arturikan, guziko tirrian, nere bila enbilen bari gan erdian; erronkak botatuz prestuekerian, ez dik ongi ematen norik bere errian; egunazko argian, jokatu nai nian; bañar ez naut ipini inon premian.

1799. urteko urtiarrilean gertatu zen hori, Pernandok 35 urte zituela, eta bertso hau aldeaz aurretik prepartatua balitz ere, gertariak berek adierazten digu bat-batekoak egiteko oihura.

Bi urte geroago, 1801eko otsaillean Billabonako plazan izan zen desafio ospetsu bat, Zabala eta Pernando amezketarrak eta Txabalategi ernaniarra partaide zirela. Lehen hamairu puntuko bertso motak zalantza jartzen bazigun ere, oraingoan zortzikoak zerabilten. 1802an Tolosako plazan Pernando eta Zabaleren artean izan zuten bertso saila ordea bederatzi puntukoak erabiltzen zuten. Jokoa errenta ez bazen, bertsolaritza ere ez nonbait. Irabazpena urri zuten nonbait eta hara zer nolako lehen bertsoak osatu zituzten elkarren artean:

Errenariak ez bada ofizio ontan, ezin mantendu geizke errejalotan; konbiatuagatik

noizen bein ardotan, karga labore gutxi libratu erotian; asko zeinek daukan, ari nazak ontan, urre gutxi poltsan sartzen bertsoetan; saiatu bearko degu beste lanetan.
Pernandoren bertso horri, Zabala gaitzek hara zer nola ihardetsi zion:

Manifestoan dago errenta gurea, kantuz ez dala sartzen poltsan urrea, eta libratu ere karga laborea; asko dadukatenak berentzat ohea; tokante noblea, ni gizon pobrea, gutxi det sobrea, etxean gordea, deaneakin pasatzen nazu ordea.

Gainera, bertso horietatik ageri denez, potoak egiteko beldurrik gabe aritzen ziren bederatzi puntukoetan. Zer ageri hobirik garai hartako bertsolarien bat-bateko bertsogintzaren lekuko?

Neurri mota hori aipatzean beti bururatzten zait Xempelaren bertso hori, bederatzi bertsolari Oiarzugon plazan bildu zirenean bota zuena, bere zortzi lagunak banan bana aurkeztuz. Agurrezkoa zenez, behar bada aldeaz aurretik bere buruan pentsatua zeraman, baina hala ere bertso dotorea eta ongi ebakia. Panderia, Lexoti, Ibarre, Xorrola, Bordondo, Ardotx eta Arotxa ziren partaide, guzietan onenengoak Xempelar bera eta Larruburu famatu zirela. Aldeaz aurretik pentsatuaren, irakurleak ohartuko denez, ez zen hain erraza holako bertso biribila asmatzea:

Fanteriako onek memoria erne; Letsozik jartzen digu zer bait amore; txarrik ezin bota du Ibarrek naitere; -nik oiekien ezin det luzitu batere; Xorrola da trebe; baita Bordondo're; Ardotx paregabe; Arotxa kantore. Larruburu jartzen det gobernadore.

Bertsolari bakoitzaren izenak aipatu ez ezik, baita bakoitzaren doan-ak agertu ere. Gainera, Xempelar da bertsolariaren eskola era berezi baten berri ematen diguna, Iparragiren joeraz beretzien zuela. Horregatik egin zion desafio famatu hura:

Iparragirre abila dela askori diot aditzen, eskola ona eta musika ori oiekien zerbitzen. Ni enatuz ibiltzen kantuz dirau biltzen komeriante moduan; debalde pesta prepartzen det gogua dedan orduan.

Eskola ona eta musika, bertsolari gañera, gu ere zer bait izango gera orrela orizaten bagera. Atoz gure kalera, buserritar legera, musika oiek utzita; Errendieran bizi naiz; eta egin zaizazu bisita.

Kalera gomitatzen bazuen ere, tradiziozko baserritar legera errenditzea eskatzen zion.

Tradiziozko legeraren baretik ere, bertsolari bakoitzak bere era bereziak ditu. Adibidez, Txirrita batek bere eskola berezia zuen zirrikaroko doatnez. Horregatik, inoiz, gai emai-

leak heurak ere zirikatzen zuten, pikardiazko galak emanaz edo itzuraz iriten biderik ez duen punturen bat emanaz. Hara, behin batean, "bis" puntuarekin zer nolako estuasunean sarturazi zuten; baina, Txirritaren bertsogintza ofizioz hain landua zegoenez, onomatopeyazko hotsekin bederen, gai bati zentzua emanaz bete ahal izan zuen. Hara nola: Gai emalleak:

Naigoa nuke baneuka zuk dezun ainbat bist Txirritak:

Etxean ba det txakur bat deitzen zaiena Lis, atearen gañetik egin ondoren pist, azpiko zuloetan laster sartzen da txist.

Bat-bateko burutzen horiek oso biziak eta umoretsuak izaten ziren.

Hortan, Uztapidek ere Txirritan eskolari jarraitzen zion, eta hara zer nolako ateraldia izan zuen suieta batean:

Gai jartzaileak; Trenak zenbat eruberra ditu?

Uztapidek: Jakin nai duenak azpira begitu; ipinitako guztiak an izango ditu.

Euskarā ondo ezagutu, bertsolari ofizioz menderatu, gaiari ondo loru eta bertan ahalik gehien sakondu, behar beharrezkoak dira bertsolari ona izateko. **Juan SAN MARTIN**

Recientemente, y no es ésta la primera vez, me ha sorprendido leer obviando ciertas dudas a la capacidad de los antiguos bersolaris a la improvisación. Pero noticias bien de jó escritas izuetza en su obra sobre las danzas de Guipúzcoa. En aquel entonces, según se desprende

Gardunak (Caledones) eta euskaldunak

Euskaldunen ikhazkiak zein lekhu-tan egon litezken bilhatzen ari ginean, ikhisi dugu nola Ipharraldeko Italian Mont-Blanc eta Monte Rosa (Urhotzaren Mendia) dagoen eskualdeetan euskarazko izena duten herriak dozenaka zegoen. Geroz Kanarietan euskarazko toponimoz bertalde berrogei bat phrastak (beren itzulpenez) konkistaren epokan hartuta gendukan. Kanarietako phrastak eta hizakiak nola eskarazkoak ziren ikhuz gendaken. Gaur Britainia Handiaren Ipharraldean dagoen hogeitaz engraphēden itxudio bat, Henri Gutierrez egina ikhertzen ba dugu, erraz ikhisiko dugu nola engraphē hauek oghan alphabētoaz iratizita, itxudio hunen egileak erraiten derakunetz hizkuntza hunen euskararekikako askazigoa erakusten derakuten.

Ipharraldeko Britaniam, garu egunean sotoak bizi dira, bainan populu hau gure epokaren IV-garren mendean. Irlandatik ethorriak dira. Eta soilik XI-garren mende danik esku-

lade hauietan nabusitu dira. Lehenago hor bizi izan diren herrien izena caledones (garudunak, gardunak) zen. Eta nola euskaraz gara (kara) hitza dialekto batzuetan kolore erraitetok erabiltzen bait da, halatan ere caledones latinetiko itzulpenaz picihi hitzaz ere izenezatzen ziren.

Hor ipharraldean, Garadunenherrian ditugun engraphēak, zortizarrez ez ditugu itzulpen batetaz. Oghan alphabētoa' lerro baten gainean egiten diren marra transversalen bidez' alphabēto latinaren baseaz asmatu zen, Irlandako irlandara, eta Scotiako irlandara itxudiatu dituenk erraz ikhisi dute nolak konbentsionalismo kaprixiusokoe erabiltzen diren hizkuntza hunen orthographian. Horiakotz estonagarrria da, engraphē garadun hauietan dadukagun transkripzioarean simplestasuna. batez ere oghan zeinuak keltoek asmatuta direla onhar ba dezagu. Engraphē hauien textua' batzuetan hunelakoak bait dira: **Dio sutu oihani azua lorreko karzak; edo-**

ta hila du ikeko kuvak, edo-ta udara zan onsa.

Hala-ere engraphie hauien itzulpenak bertze aldeten ez dira hoin argi.

Henri Gutierrez lana ikhertuz geroz' Scotiā hunen historia, eta batez ere klan batzuen historia aztertu nuen, eta orduan bertze gauza aipagarri batzue nabari zitzaizkitan.

Klan batzuen izenak erraz euskarazko zirela ikhuz nezaken. Herriolde hauietan gaur egunean klan batzue ethorkitz gardunak dira, eta bertze batzue keltoak direla erraiten da.

Scottiarren Historian klan garadunak' bethi klan izkotoen etsaiak izan, dira. Klan hauietan batez ere ezagutua da CAMPBELL'en gizelia. Campbellarrek bethi gorrotatu dituzte keltoak eta Edinburgheko erregeen burrukhideak izan dira keltoen kontra. Nola heien klan-izenari keltarazko azalpenik eman ez bait ziezaketoen izen hori' goititzen bait zela erraiten zuten keltistek eta hunen arauera Cam (okher) eta beul (aho, muthur) haren etymona zela erraiten zuten. Berhain Campbellak bizi diren herrialdeak ikhertzen da ditugu, laister ikhisiko dugu nola heien klanen bizi-lekuaren erdian BLACK MOUNT izeneko mendiak edo gaueak dagoen eta huntara CAMPBELL ez da GANBEL, hau da gana-beltz, baitzik beraz Black Mount izena ez da haren itzulpena baitzik eta biok gauza berdina dira. Baitan hau ez da soilik gerhatzen Britaniam eta nabustian, Scotiako bertze bi lekhuetan ere, non CAMPBELL izeneko klanak bait, dagozta, hor ere bethi hunelako mendik beltz izenaren itzulpenak ditugu. Kintyrean ba dugu huntara Dubh Creagh izenez gane bat, eta Ilay uhartearen Bein Dubh izeneko bertze munho bat. Hiruetan beraz, eta lekhu differentetan CAMPBELL hitzak erraiten derakunetz' GANBELTZ hitzaren itzulpen bat dugu.

Geroz Scotiako historian askotan agertzen den SHAW familiak ere izen hunen bidez bere ethorki euskaroidetako erakusten derauku. Familia hunen izenaren lehen forma OF SHAW (o'Shaw) zen eta Scotiar liburu historiko batzuetan erraiten dutenez' izen hunen erraiten nahia 'otsoa' zen beraz: o'shaw eta otso ahoskatze berdinak dira.

Scotiako klanek bethi beren ethorriak eta karazko irazki eta bilbeen arteko kombinazioa dituzte. Hauiei 'karian' hitza emaitzen zaie. Scotiako klan bakoitzak bere tartana daduka. Huntara nabari zitzaian nola ethorki gardunak (caledonak) ziren-klanen tartanak ghehietan urdin, ferde, eta beltz koloreen bidez eginikako irazkiak eta bilbeak ziren, batzuetan lerro hersi batzue gorri eta hori ziretzen. (Adibidez: Gordon, Forbes, Mackenzie, Farquharson, Duncan, Campbell, Shaw, Sutherland; Murray, Keith, Malcolm, etc.) Aitzitik ethorki keltoak duten klanek bethi gorria maithatzenago dute, adibidez: Maxwell, MacDonald, MacCinnon, MacNab, MacNaughton, Scott, Gow, Bruce, Bodie, MacRae eta bertze klan keltoek tartan gorria. Askotan pensatu ikhuan nuen, eta nire buruari galde egin nerakun, eta Euskalherrian hoinbertze euskal emaztekiek tartan-anzoko' gonen-oihaletan eramaitzen ohi dituzten koloreak zeinak ghehietan ferde, urdin, beltz bait dira, hunelako askazigun bai gure bi herrien artean erakusten ez denaz, jakin gabe ledinarren Hemen askazigun folkloriko bat baitzik ez gendukake, bainan aipagarria hala-ere.

Federico KRUTWIG SAGREDO

Escocia, que ha recibido este nombre de ciertos invasores celtas que llegaron a ella, por primera vez en el siglo IV de nuestra era, pero que habiendo sido vencidos por los anteriores pobladores, los caledonios inica-

del texto, se trata de un texto público, y con el nombre "Amezketarra" y luego, y no se llegó a una sazón con la que se le presentó en la época, pero no contradicando. Si en las horas de la noche, en lugar y probablemente efectos del momento, por el portal del momento, cuando se hizo un seguimiento, Fernando quedó de aquí en adelante y le ajustó la medida de los versos que hizo en la historia de los no son menos importantes, lebre desalojó de los protagonizados por el nanulo de Amegretarra y Txabalategi, bala y Txabalategi, aún de más tiempo tarde en la parte de Fernando y Zabala, el fincadero y Zabala, fincadero y Zabala, rimas, despostradas, gorrasas es "ofa" el desalojó de Amegretarra al bardo Iparragirre, más de su época, la capacidad de los tradicionales de los que y cada de los dos no conoce más, a una composición de estrofa con la descripción de cada composición, comprueba la capacidad de la precisión, la composición de la Pero, el resultado de un fenómeno, deja siempre en un carácterístico y un título.

mente permaneciendo en un espacio durante el siglo X hacia el siglo XV, conservando en su veintena de años. Henri Guiter, fue publicado en el RSVAP, en el estudio de este ensayo inscripciones. Estas inscripciones un alfabeto de los nemos de los siglos por lo que algunos de los lugares que bajo tan solo una. Garaldega que puntos de este estudio siempre en el caso que daba Henri. Merece destacar el clan de los Caledones historia de Escocia contra los invasores aldas poblaciones, extrajero en un mismo caso en el caso, como es el caso, todos los estudios de ciencia-ficción. En el caso de Escocia, se le dio el nombre en irlandés de Caledonia. Por el contrario, el nombre de los lugares que este clan hizo en este la región de la significación. En forma de un título. Harbel.

LA EMPRESA INDUSTRIAL ANTE EL I.V.A.

Curso en San Sebastián, subvencionado por el IMPI

Organización: Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Guipúzcoa.

Celebración: En los locales de la Cámara, los días 25, 28 y 31 de Mayo de 9 a 14 h.

Programa (Síntesis): Características y modalidades de IVA. Repercusiones de su implantación. Mecanismo y funcionamiento del IVA. Situaciones especiales. Ejercicios prácticos.

Información: En la propia Cámara, Aguirre Miramón, 2. San Sebastián. Telf. 27-21-00.